BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Prentsa oharra**

# Eguazten honetako Osoko Batzarrak 17 aztergaiko gai-zerrendea izango dau

**Bilbon, 2012ko maiatzaren 22an.** Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak maiatzaren 23an Gernikan, goizeko 9:00etan hasita, izango dan Osoko Batzarrerako deia egin dau. 2012. urteko bosgarren Osokoa dan horretan 3 Itaun, Mozino 1, 7 Ahozko Erantzun-Eske, Foru Araugai 2 (Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergea eta Ondasun Higiezinen gaineko Zergea) eta 4 Arauz Besteko Proposamen aztertuko dira. Erakundearen web-guneraren bitartez (www.jjggbizkaia.net) zuzen zuzenean ikusi ahal izango da batzarra, hainbeste aztergai dauenez luzea izango dana.

Osokoa hiru Itaunegaz hasiko da; lehenengo biak Bizkaiko Talde Popularrak aurkezturik dagoz, horreetariko lehena Madariaga Ingurumeneko Foru Diputatu jaunari zuzendua, BUHKPIren errebisinoaren arabera Zabalgarbiko planteak erabilten ez dauen gaitasunaren inguruko aurreikuspenei buruzkoa eta bigarrena Imanol Pradales Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatu jaunari zuzendua, Enpresa leihatilari buruzkoa .

Hirugarren Itauna Bildu Taldearen eskutik dator eta Ingurumeneko Foru Diputatuari zuzenduta dago, argibideak emon daizan Errigoitiko Udalak sustatu nahi dauen biomasa zentralari buruz eta horren harira Foru Aldundiak argitaratutako 208 Foru Aginduan adierazten diran inguruabarrei buruz.

Hiru Itaun horreen ostean, Mozinoaren txandea izango da. Bizkaiko Talde Popularrak aurkezturik dago eta Bizkaiko Sare Hidrometeorologikoaren egoereari, operatibitateari eta benetazko amaiereari eta Getxoko Gobelas, Fadura eta Bolue ibaien arroetan sareak dauen egoereari buruzkoa da.

Mozinoaren ostean, Ahozko Erantzun-Eskeen eztabaidea etorriko da. Horreetariko lehenengoa Bildu Taldeak aurkeztu dau eta zerga-zehapenen barkatzeei buruzkoa da. Hurrengo gaiak honeexek izango dira: Karrantzako FundaciÛn Hospital Asilo Nuestra Señora de los Desamparados deritxan egoitza, N-634 errepidearen Etxebarriko zatia lurperatzea, laguntza pertsonalerako zerbitzua, Bizkaiko Ogasunaren Ikuskaritzaren kasuaren inguruan Epaitegi Gorenak emondako epaia, lehiakortasuna hobatzeko plana eta gizarteratzeko laguntzak (azken seiok Bizkaiko Talde Popularrak aurkezturik dagoz).

Batzarraren hurrengo aztergai biak Foru-Araugaiak dira, daborduko Batzordearen Erizpena maiatzaren 10ean jasorik dabenak eta Osokoaren onarpena behar dabenak,

hain zuzen be Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergea aldatzeari buruzkoa bata eta Ondasun Higiezinen gaineko Zergeari buruzkoa bestea.

Aurreko Osoko Batzarrean jazo zan legez, honetan be Arauz Besteko Proposamenakaz amaituko da. Lau Proposamen eztabaidatuko dira uriko hondakinen kudeaketeaz eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoagaz sinatutako Lankidetza-Hitzar≠mena ez luzatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako erabagiaz.

**Nota de prensa**

# El Pleno de este miércoles abordará 17 asuntos en el orden del día

**Bilbao, a 22 de mayo de 2012.** La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha convocado un nuevo pleno para este miércoles, 23 de mayo, que se celebrará en la Casa de Juntas de Gernika a partir de las 9 de la mañana. Será el quinto pleno del año 2012 y en él se abordarán 3 interpelaciones , 1 moción, 7 preguntas orales, 2 proyectos de Norma Foral (Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana e Impuesto sobre Bienes Inmuebles) y 4 proposiciones no de norma. La página web de la institución (www.jjggbizkaia.net) retransmitirá en directo una sesión que se prevé larga.

El pleno comenzará con tres **interpelaciones**; dos de ellas, las ha presentado el Grupo Popular. La primera va dirigida al diputado foral de Medio Ambiente, Josu Madariaga, que tendrá que responder a la "*previsión del uso de la capacidad no utilizada según la revisión del PIGRU de la Planta de Valorización de Residuos de Zabalgarbi*". Seguidamente, a petición también del Grupo Popular, el diputado de Promoción Económica, Imanol Pradales, informará sobre las acciones que va a llevar a cabo su departamento para "*impulsar la Ventanilla Empresarial*".

El Grupo Bildu es el promotor de la tercera interpelación del día. De nuevo, el diputado de Medio Ambiente subirá al atril del Parlamento de Bizkaia para dar explicaciones en relación a la central de biomasa que pretende impulsar el Ayuntamiento de Errigoiti, y sobre diferentes aspectos desarrollados en la Orden Foral 208.

Después de las tres interpelaciones, llegará el turno de la **moción**. El cuarto punto del orden del día está reservado para una moción del Grupo Popular relativa al "*estado, operatividad y terminación efectiva de la Red Hidrometeorológica de Bizkaia y la situación de la misma en la cuenca del río Gobelas, Fadura y Bolue (Getxo), ordenando su traslado a la Diputación Foral*".

A continuación, los 51 apoderados de las Juntas Generales de Bizkaia convocados para este pleno, escucharán las explicaciones de los representantes de la Diputación Foral -a través de **pregunta oral**- sobre las siguientes cuestiones: condonaciones de sanciones tributarias (presentada por el Grupo Bildu), y sobre la Residencia Fundación Hospital Asilo Nuestra Señora de los Desamparados de Carranza, el soterramiento de la N-634 a su paso por Etxebarri, el servicio de asistencia personal y la sentencia del Tribunal Supremo sobre el caso de la Inspección de la Hacienda de Bizkaia; estas cinco últimas presentadas por el Grupo Popular Vizcaíno.

La jornada continuará con el último trámite parlamentario que le restan a los dos **proyectos de norma foral** para modificar el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y el Impuesto de Bienes Inmuebles, cuyos dictámenes se aprobaron el 10 de mayo en la Comisión de Economía y Hacienda y que deben de ser ahora ratificados por el pleno.

Como ya ocurriera en el pleno anterior, la sesión de este miércoles concluirá con las **proposiciones no de norma**. La gestión de los residuos urbanos y la decisión de la Diputación Foral de Bizkaia de no prorrogar el Convenio con el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, será el tema que centre la última parte de la sesión.